

TALDEAREN ARAUDIA BETETZEKO ETA KONTROLATZEKO ARLOA

Balore-merkatuko jokabidea arautzeko barne-
erregelamendua



AURKEZPENA GOBERNU ORGANOENTZAT

**Kutxabanken Auditoria eta Araudia Betetzeko Batzordea, 2021eko maiatzaren
25a**

Kutxabanken Administrazio Kontseilua, 2021eko maiatzaren 27a



Aurkibidea

I. TITULUA. SARRERA.....	3
II. TITULUA ARAU OROKORRAK	4
III. TITULUA ERAGIKETA PERTSONALAK.....	6
IV. TITULUA MERKATU-ABUSUA PREBENITZEA.....	11
V. TITULUA. ANTOLAKETA-EGITURA ETA ERREGELAMENDUAREN KUDEAKETA	25
I. ERANSKINA	29
II. ERANSKINA.....	30
III. ERANSKINA.....	34
IV. ERANSKINA.....	36
IV. ERANSKINA.....	39

I. TITULUA. SARRERA

KUTXABANK, S.A. eta CAJASUR BANCO, S.A.U entitateen (aurrerantzean, entitateak) Jokabide Kodeetan jaso den eran, biek konpromisoa hartu dute enpresa politika garden baten buru izateko, era iraunkorrean. Halaber, zuzentasunaren eta zintzotasunaren printzipioei jarraituko diete eta presentzia duten komunitateetako garapen ekonomikoarekin konprometituta egongo dira, legea zorrozki errespetatuz.

Printzipio horiek Jokabidearen Kodeetan garatzen dira. Informazio pribilegiatuarekiko, merkatuko manipulazioarekiko eta baloreen merkatuekin erlazionatutako beste jarduketa batzuekiko gutxieneko oinarri batzuk ezartzen dituzte kode horiek, eta Balore Merkatuko Jokabidea Arautzeko Barneko Erregelamendu honetan zehaztu dira bi kodeak.

Helburua

Erregelamendu honen helburua da Kutxabank eta Cajasur entitateen jarduketak arautzea, baita entitate horien gobernu organoak eta langileak arautzea ere, merkatu-abusuaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera, balore merkatuetako gardentasuna sustatuz eta, une oro, entitateetako inbertitzaileen eta erabiltzaileen interes legitimoa bermatuz.

Erregelamendu honen edukia hainbat titulutan dago banatuta. Horietan tratatzen dira erregelamenduak eragiten dien pertsonekin erlazionatutako gaiak eta pertsona horiek dituzten betebeharrak, beren eragiketa pertsonalen araudia eta merkatu-abusua prebenitzeko araubidea.

Aplikatu beharreko araudia

Balore-merkatuko jokabidea arautzeko barne-erregelamendu hau indarrean dagoen legedian xedatutakoa kontuan hartuta idatzi da. Lege horien artean daude hauek:

- Balore Merkatuaren Legearen testu bategina eta hori garatzen duen araudia.
- 596/2014 (EB) Erregelamendua, merkatu-abusuari buruzkoa eta hori garatzen duen araudia.
- 2017/565 (EB) Erregelamendu Delegatua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentaraua osatzen duena, inbertsio zerbitzuen enpresen antolamendu baldintzei eta funtzionamendu baldintzei dagokienez.



II. TITULUA ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Aplikazio eremua

1. Jokabidea Arautzeko Barne Erregelamendu hau (aurrerantzean, erregelamendua edo JABE) Kutxabank eta Cajasur entitateei izango zaie aplikagarri, baloreen merkatuan garatzen dituzten jarduerekin loturik. Halaber, aplikatzekoa izango zaie pertsona hauei ere (aurrerantzean, lotutako pertsonak):
 - a) Entitateetako Administrazio Kontseiluetako kideei.
 - b) Kutxabankeko Zuzendaritza Batzordeetako kideei.
 - c) Entitateetako bestelako zuzendari, enplegatuei, ahalordetuei eta eragileei, baldin eta haien lana zuzenean lotuta badago baloreen merkatuetako eragiketekin eta jarduerekin, edo haiei babes emateko balio badute.
 - d) Entitateetakoak diren edo haietan zerbitzu ematen duten bestelako pertsonari, eta, Betetze Funtzioaren arabera, erregelamenduari lotuta egon behar dutenei, dela merkatu horiekin bat egindako eragiketa baten berri dutelako, dela halakoetan parte hartu dutelako. Zehazki, erregelamendu honi lotuta geratuko da entitateekin jarduten duen edo haietan zerbitzu ematen duen edozein pertsona, bai eta inizatuen zerrendetan ageri direnak ere, informazio pribilegiatua izateagatik.
 - e) JABE erregelamenduari lotuta dauden pertsonen lerro hierarkiko guztiari, zeinek bere sailean duen funtzioa dela eta.
 - f) JABE erregelamenduari lotutako pertsonentzat idazkaritza-lanak egiten dituzten pertsonari.

Araudia Betetzeko Zuzendaritzak eta Talde Kontrolak definituko du entitateen zer funtzio eta sail egongo diren JABE erregelamenduari lotuta, eta Administrazio Kontseiluari igorriko dio informazio hori, onar dezan.

2. Merkatu-abusua prebenitzeari buruzko IV. tituluko xedapenei lotuta egongo dira entitateetan inbertsio-zerbitzuen prestazioan edo baloreen merkatuan lan egiten duten pertsona guztiak.
3. JABE erregelamenduari lotuta dauden sailerako arduradunek ahalik eta bizkorren jakinarazi beharko dizkiote sail horietan izandako langile-aldaketak Betetze Funtzionarioari.

Aldakuntzat hartuko dira langile berrien altak eta behin betiko bajak edo iraupen luzeak, baita aldi baterako laneratzak ere (praktiketako langileak ere barnean hartuta).

Betetze Funtzioak, egoki irizten dionean, eskatu ahal izango du baieztar dezatela sail bakoitzeko arduradunari atxikita dauden pertsonen zerrenda.

4. Betetze Funtzioak etengabe eguneratuta edukiko du erregelamendu honetara lotuta dauden pertsonak biltzen dituen zerrenda bat, eta gobernu-organoen zein gainbegiratzeko agintaritzen esku ipiniko du.



kutxabank

cajasur 

Taldearen Araudia Betetzeko eta Kontrolatzeko Arloa
Jokabide korporatiboa

Gutxienez urtean behin berrikusiko da lotutako pertsonen zerrenda, bereziki aurreko zenbakiko b) eta c) letretan aurreikusitakoari dagokionez.

2. artikulua. Eginbehar orokorrak

Erregelamenduari lotutako pertsonak beraien jarduerako eremu espezifikoari eragiten dioten balore-merkatuko indarreko legeria, erregelamendu hau eta berau arautzen duen barne-araudia ezagutu eta bete beharko dituzte, baita horien aplikazioan lagundu ere.

III. TITULUA ERAGIKETA PERTSONALAK

3. artikulua. Xedea

Titulu hau aplikatuko zaie lotutako pertsonak gauzatzen dituzten aginduei eta eragiketei, eragiketa horien objektu direnean: merkatu arautuetan¹, NSM edo NSA sistemetan², negoziatzen diren balore negoziagarriak eta tresna finantzarioak³ edo merkatu edo sistema horietan negoziatzen den azpikoa duten balore negoziagarriak eta tresna finantzarioak, betiere agindua edo eragiketa merkatu horien barruan edo horietatik kanpora gauzatzeko edo exekutatzeko eragozpenik gabe.

Agindu eta eragiketa pertsonaltzat hartuko dira lotutako pertsonak euren ondarearekin lotutako baloreen eta tresna finantzarioen gainean egindakoak.

4. artikulua. Jarduera ez-espekulatiboa

Erregelamendu honi lotutako pertsonak eskuratutako edo saldutako tresna finantzarioak edo balore negoziagarriak ezingo dira inola ere saldu edo berriro erosi, erosketako edo salmentako eragiketa egindako saio edo egun berean.

5. artikulua. Nahitaezko bitartekaritza

Bitartekaritza ez da nahitaezkoa izango eragiketa pertsonalak Kutxabank, CajaSur edo taldeko enpresen bidez egiten direnean.

6. artikulua. Aginduak formalizatzea

1. Entitateen bidez formalizatutako lotutako pertsonen aginduak idatziz formalizatuko dira, entitateek horretarako gaituta dauzkaten edozer bitarteko telematiko, informatiko edo elektronikoren bidez, edo telefonoz ere bai, agindua grabatuta geratzen bada. Era berean, aginduen justifikazio fitxategi bat jaso beharko da.
2. Erregelamenduari lotutako pertsonak baloreei edo tresna finantzarioei buruzko edozein eragiketa mota agintzen dutenean, eragiketa mota bakoitzaren berariazko araudian ezarritako funtsak eta bermeak emango dituzte, eta, hala dagokionean, alderdiek sinatutako kontratuan ezarritakoak. Eskurako eragiketetan funts-hornidura eginda eduki behar dute, edo baloreen edo dagozkien eskubideen titulartasuna edo eskuratzea egiaztatu behar dute.

7. artikulua. Komunikazioko eta informazioko eginbeharrak

1. Erregelamenduari lotutako pertsonak komunikazio xehatu bat egin beharko dute hilabete natural bakoitzaren amaieran, entitateetako Betetze Funtzioetara zuzenduta, aurreko komunikaziotik aurrera gauzatutako agindu eta eragiketa guztiak bilduz.

¹ Ikus II. eranskinen 10. eta 11. definizioak.

² Ikus II. eranskinen 6. definizioa.

³ Ikus II. eranskinen 9. definizioa.

Idatziz edo formatu elektronikoa aurkeztu beharko da aginduen eta eragiketen zerrenda, hurrengo hileko lehendabiziko hamabost egunen barruan eta aurreko hileko eragiketei erreferentzia eginez.

Obligazio horretatik salbuetsita geratuko dira higiezinaren baloreetako inbertsio kolektiboko organismoetako eragiketa pertsonalak (OICVM) edo inbertsio alternatiboko funtsen (FIA) eragiketak, ikuskaritzara loturik daudenak, estatu kide batek bere aktiboetarako arriskuen banaketaren maila baliokidea eskatzen duen legeriaren arabera, baldin eta eragindako pertsonak edo bere kontura eragiketa egiten duen pertsonak ez badute parte hartzen entitatearen kudeaketan.

Aurreko paragrafoetan aurreikusitako ondoretarako, lotutako pertsonen eragiketa pertsonaletara parekatuta geratuko dira honako hauek:

- a) Lotutako pertsonekin familia-harremana duen edonork egindakoak⁴.
- b) Lotutako pertsonekin lotura estua duten sozietateek egindakoak⁵.
- c) Bitarteko pertsonen bidez egindakoak⁶.

Obligazio horrekin lotuta, Betetze Funtzioak jakinaren gainean ipiniko ditu lotutako pertsonak, ezarritako komunikazio-prozeduraren inguruan.

2. Betetze Funtzioak argitaratuta edukiko du, intranet korporatiboan, Jokabidea Arautzeko Barne Erregelamenduari lotutako pertsonen eragiketa pertsonalen hileko aitortpena egiteko une bakoitzean indarrean den erredua, baita Kutxabankek eta CajaSurrek merkaturatutako Kutxabank Kudeaketa inbertsio-funtsen zerrenda bat ere –zeinen eragiketak jakinarazi beharko baitira JABE erregelamenduaren babespean–.
3. Betetze Funtzioak zehaztu ahal izango du zer eragiketa baimendu behar diren egin aurretik, haien zenbatekoa edo arriskua kontuan hartuta. Kasu horretan, JABE erregelamenduari lotutako pertsonen jakinaraziko die, eta zerrenda bat argitaratuko du, esandako obligazio horren eraginpean dauden tresna finantzarioekin eta egindako eragiketekin.
4. Betetze Funtzioak hala eskatuta, erregelamenduari lotutako pertsonak beti xehetasun osoz eman beharko dute egiten dituzten eragiketa pertsonalen berri, eta, hala eskatuz gero, idatziz, gainera.

8. artikulua. Eragiketak egiteko debekuak

1. Erregelamenduari lotutako pertsonak ez dute agindurik emango edo eragiketarik egingo, Betetze Funtzioak aldeztu aurretik identifikatu dituen tresnekin loturik eta hark zehaztutako denboran.
2. Txostenak eta gomendioak egiteko, argitaratzeko edo zabaltzeko ardura duten unitateetako pertsonak, erregelamenduari lotuta daudenean, ezingo dute eragiketa pertsonalik egin txostenak edo gomendioak aipatzen dituen baloreen eta tresna

⁴ Ikus II. eranskinen 12. definizioa.

⁵ Ikus II. eranskinen 19. definizioa.

⁶ Ikus II. eranskinen 15. definizioa.

finantzarioen gainean (lotutako tresna finantzarioak barnean hartuta ⁷⁾):

- a) Jaulkitzaile baten edo haren baloreen inguruko analisi espezifikoa egitean, analisia hasten denetik harik eta gomendioa edo informazioa biltzen duen txostena argitaratu arte, eta hartzaileek han bildutako informazioaren arabera jokatu ahal izan arte.
- b) Txostenak edo gomendioak erreferentzia egiten dien kasuak direnean, gomendioen aurkako eragiketak badira, salbuespeneko kasuetan izan ezik, eta Betetze Funtzioak aurrez onartuta.

Ez dira nahitaezkoak izango aurreko zenbakian aipatutako abstentzioak, eragiketaren betearazpena txostena edo gomendioa egin aurretik hartutako eskubideen edo konpromisoen ondorio denean, edo konpromiso horien estaldura eragiketen ondorio denean, nola eta eragiketa ez dagoen oinarrituta txostenak bildutako ondorioen ezagutzan.

Artikulu honetan ezarritakoa aplikatuko zaie, era berean, hierarkikoki txostenak eta gomendioak egin, argitaratu edo zabaltzeko ardura duten unitateetako lotutako pertsonen gainetik daudenei, txostenetako edo gomendioetako edukia eskura badezakete.

9. artikulua. Inbertsio-zorroen kudeaketa diskrezionalako kontratuak

1. Inbertsio-zorroen kudeaketa-kontratu baten bidez, lotutako pertsona batek horretarako legez gaitutako pertsona baten esku uzten du ondare higiezinaren kudeaketa osoa edo partziala, eta ahalordetutako pertsona horrek hartu ahal izango ditu, modu diskrezionalan eta lotutako pertsona horrek esku hartu beharrik gabe, baloreen inbertsio-, desinbertsio- eta mantentze-erabakiak, baita haien fruituenak eta errentagarritasunarenak ere.
2. Inbertsio-zorroak modu diskrezionalan eta indibidualizatuta kudeatzeko kontratu bat hitzartuta daukaten lotutako pertsonak jakinaren gainean ipini beharko dute Betetze Funtzioa, kontratu haren kopia bidaliz.

Betetze Funtzioak, kontratuaren kopia jaso ostean, honako gai hauek egiaztatuko ditu:

- a) legez gaituta dagoela entitatea, inbertsio zorroen kudeaketa diskrezionalaren eta indibidualizatuaren zerbitzua eskaintzeko;
 - b) kontratua bokazioz iraunkorra dela.
3. Betetze Funtzioak sinatutako deklarazio bat eskatu ahal izango die artikulu honetan aipatzen diren lotutako pertsonari. Deklarazio horretan zehaztuko dute beraiek parte hartu gabe hartu direla beren ondarearen kudeaketari dagozkion inbertsio- eta desinbertsio-erabakiak.
 4. Betetze Funtzioak kopia jaso ostean eta lehen aipatutako gai horiek egiaztatu ostean, nola eta ez duen kontrakorik adierazten, ez zaizkie aplikatuko 4. artikulutik 8. artikulura bitartekoak zorro-kudeatzaileak erabakitako eragiketei.

⁷ Ikus II. eranskineko 7. definizioa.

10. artikulua. Zuzendaritzako ardurak dituzten pertsonen obligazio espezifikoak

1. Entitateak jaulkitzaile izanez gero⁸, zuzendaritzako ardurak dituzten pertsonen⁹, gehienez eragiketa martxan jarri eta hiru lanegunen barruan, honako hau jakinarazi beharko dute: entitateen balore negoziagarri eta tresna finantzarioen inguruko eragiketa pertsonal guztiak, araututako merkatu batean negoziatuak –NSM edo NSA–, edo merkatu haietan negoziatzen den azpikoa baldin badute. Ondoren, balore negoziagarri eta tresna horien gaineko osteko eragiketa guztiak jakinarazi beharko dituzte, baldin eta haien balioak 20.000 euro gainditu baldin baditu urte natural beraren barruan.

Zuzendaritza ardurak dituzten pertsonen Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalera eta entitate jaulkitzailerera egin beharko dute jakinarazpena. Entitateek eurek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalera zuzendariaren izenean egin ahalko dute komunikazioa, edo zuzendariak berak ere egin ahalko du, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren Egoitza Elektronikoaren eremu irekia baliatuta. Entitate jaulkitzaileari egin beharreko komunikazioari dagokionez, Betetze Funtzioaren bidez egin beharko da: hala, jaso beharko da behartuta dagoen pertsonak egiten duen Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari egindako jakinarazpena, edo entitateek egiten duten haren izenean –azken kasu horretan, ulertuko da bete duela gainbegiratzailerak jakinaren gainean ipintzeko obligazioa–.

Eragiketak jakinarazteko obligazioak Batzordearen 2016/522 (EB) Erregelamenduaren 10. artikuluan aurreikusitako eragiketa guztiak bilduko ditu¹⁰, entitateek jaulkitako akzioen eta zor-tresnen edo eratorrien alorrean, edo haiekin lotutako bestelako tresnei dagokienez.

Zuzendaritzako ardurak dituzten pertsonen eragiketak jakinarazteko obligazioarekin lotuta, pertsona horiek egindako eragiketa pertsonalekin parekatuta geratuko dira haiekin lotura estua dutenek egindakoak¹¹.

Zuzendaritzako ardurak dituzten pertsonen Betetze Funtzioari jakinarazi beharko diote eurekin lotura estua duten pertsonen nortasuna. Era berean, idatziz jakinarazi beharko dizkiete pertsona horiei titulu honen pean dituzten obligazioak, eta haiei egindako jakinarazpenen kopia bat gordeko dute.

2. Entitateetan zuzendaritzako ardura dutenek, ez dute agindurik emango edo eragiketa pertsonalik egingo Entitateen balore negoziagarriei edo tresna finantzarioei buruz, merkatu arautuan, NSM edo NSA batean negoziatzen direnak badira edo merkatu horietan negoziatzen den azpikoa badute, Entitateek jaulkitzaile gisa argitaratu behar duten edozein informazio publiko aldizkako argitaratu aurreko 30 egun naturaletan. Betetze Funtzioak onartu ahal izango ditu eragiketak, aurrez eskatuta, kasuz kasu, aplikatzekoa den araudiak ezarritako baldintzak betetzen badira.
3. Zuzendaritzako ardurak dituzten pertsonak eta haiekin lotura estua duten pertsonak ez dira salbuetsita egongo Kutxabank Taldearen titulu propioen gainean egindako

⁸ Ikus II. eranskinen 4. definizioa.

⁹ Ikus II. eranskinen 13. definizioa.

¹⁰ Ikus III. Eranskina.

¹¹ Ikus II. eranskinen 14. definizioa.



kutxabank

cajasur 

Taldearen Araudia Betetzeko eta Kontrolatzeko Arloa
Jokabide korporatiboa

eragiketak aitortzetik, inbertsio-zorroak eskuordetuta kudeatzeko kontratuen pean exekutatuta baldin badaude.

IV. TITULUA MERKATU-ABUSUA PREBENITZEA

I. KAPITULUA. MERKATU-ABUSUAREN KONTZEPTUA

11. artikulua. Merkatu-abusua debekatzea

Erregelamenduari lotutako pertsonak ezingo dituzte merkatuaren abusuarekin lotutako ekintzak gauzatu, informazio pribilegiatua modu bidegabean erabiliz edo merkatuak manipulatu.

1. Informazio pribilegiatua modu bidegabean erabiltzea izango da:
 - eragiketarak egitea edo egiten saiatzea, informazio pribilegiatua baliatuz;
 - beste pertsona bati gomendatzea eragiketarak egitea informazio pribilegiatua erabiliz, edo hartara indultzatzea; edo
 - informazio pribilegiatua modu bidegabean jakinaraztea.
2. Merkatuaren manipulazioak zera esan nahi du, prezioen formakuntza askea faltsutzen duten jardunbideak prestatzea edo egitea.

12. artikulua. Informazio pribilegiatuaren kontzeptua

1. Informazio pribilegiatutzat hartuko da balore negoziagarri bati edo gehiagori edo tresna finantzarioei zuzenean edo zeharka erreferentzia egiten dien edozer informazio zehatz, emisio-eskubideei eta haietan oinarritutako produktu substatuei barne, baita lehengaietatik eratorriei ere; halaber, informazio pribilegiatutzat hartuko da esandako balore negoziagarria edo tresna finantzarioa, horien jaulkitzaile bati edo gehiagori erreferentzia egiten diena, zeinak, publiko eginez gero, eragin nabarmena izan baitezake kotizazioaren gainean, araututako merkatu, NSM edo NSA batean.

Lehengaien gaineko deribatuei dagokienez, informazio pribilegiatua izango da deribatu horietako bati edo gehiagori zuzenean edo zeharka erreferentzia egiten dion informazio zehatza, edo lehengaien spot kontratu bati zuzenean erreferentzia egiten diona, oraindik publiko egin gabea, eta, publiko eginez gero, eragin nabarmena izango lukeena deribatu horien edo lehengaien gaineko spot kontratuen balioan; edo argitaratuko dela espero den informazioa, edo legeak, merkatuko erregelek, praktikek edo usadioek agindutakoaren arabera argitaratu beharrekoa dena lehengaien gaineko merkatu garrantzitsuetan edo spot merkatuetan.

Kotizazio-kontzeptuaren barruan sartzen da, balore negoziagarriei edo tresna finantzarioei dagokienaz gain, haiekin lotutako tresna finantzario deribatuen kotizazioa ere.

2. Informazio batek kotizazioaren gainean eragin nabarmena izan dezakeela pentsatuko da, informazio hori zentzuzko inbertitzaile batek bere inbertsio-erabakien oinarri gisa erabiltzeko modukoa denean.
3. Era berean, informazio bat zehatza dela ulertuko da, gertatzen ari diren (edo gertatuko direla espero izatekoa den) zirkunstantzia batzuen berri ematen badu, edo gertatu den (edo gertatuko dela espero izatekoa den) egitate baten berri, baldin eta informazio hori behar bezain espezifiko bada ondorioztatzeko zirkunstantzia edo egitate horiek

balore negoziagarrien edo tresna finantzarioen prezioetan (edo horien gaineko tresna deribatuenean) izan dezaketen eragina.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoa aplikatuko zaie, orobat, merkatu batean edo kontratazio-sistema antolatu batean negoziatzeko onarpen-eskaera bideratuta daukaten balore negoziagarriei edo tresna finantzarioei.

4. Balore negoziagarriei edo tresna finantzarioei dagozkien aginduak exekutatzeko ardura izango duten pertsonen dagokienez, informazio pribilegiatuta izango da, halaber, bezero batek burutu gabeko bere aginduei buruz transmititutako informazio zehatza, zuzenean edo zeharka baloreen edo tresna finantzarioen jaulkitzaile bati edo gehiagori erreferentzia egiten diona, edo balore edo tresna finantzario bati edo gehiagori erreferentzia egiten diona, eta publiko eginez gero eragin nabarmena izango lukeena balore edo tresna finantzario horien kotizazioan, edo horiekin lotura duten tresna finantzario deribatuen kotizazioan edo erlazionatutako lehengaien gaineko spot kontratuen prezioan.

13. artikulua. Merkatu-manipulazioaren kontzeptua

Merkatuaren manipulazioak zera esan nahi du, prezioen osaera askea faltsutzen duten praktikak prestatzea edo egitea. Merkatu-manipulaziotzat hartuko dira:

- a) Eragiketak edo aginduak, baita bestelako jarduketak ere:
 - baldin eta adierazgarri faltsuak edo engainagarriak ematen badituzte edo eman baditzakete balore negoziagarrien edo tresna finantzarioen, lehengaien gaineko spot kontratu baten edo emisio-eskubideetan oinarritutako produktu subastatuen eskaintzari, eskaerari edo prezioari buruz;
 - adostuta jarduten duten pertsona baten edo gehiagoren bidez tresna finantzario baten edo gehiagoren, lehengaien gaineko spot kontratu baten edo emisio-eskubideetan oinarritutako produktu subastatuen prezioa ohiz kanpoko maila batean edo maila artifizial batean ziurtatzen badute;

nola eta eragiketak egin dituen, aginduak eman dituen edo jarduketak burutu dituen pertsonak ez duen frogatzen bere arrazoiak legitimoak direla eta kasu bakoitzean dagokion merkatu arautuan onartutako praktiken¹² arabera.

- b) Baliabide fiktizioak edo bestelako engainuak edo trikimailuak baliatzen dituzten eragiketak edo aginduak edo bestelako jarduketak, balore negoziagarrien edo tresna finantzarioen, edo erlazionatutako lehengaien gaineko spot kontratu baten edo emisio-eskubideetan oinarritutako produktu subastatuen prezioan eragina badute edo izan badezakete.
- c) Komunikabideen bitartez, Internet barne, edo bestelako edozein baliabide erabiliz informazioa zabaltzea, adierazgarri faltsuak edo engainagarriak ematen baditu edo eman baditzake tresna finantzarioei, erlazionatutako lehengaien gaineko spot kontratu baten edo emisio-eskubideetan oinarritutako produktu subastatuen eskariari edo prezioari buruz, barnean hartuz zurrumurru eta berri faltsuak edo

¹² Ikus II. eranskineko 16. definizioa.

engainagarriak zabaltzea, baldin eta informazio hori zabaldu duen pertsonak jakingo balu edo jakin beharko balu informazioa faltsua edo engainagarria zela.

- d) Indizeei buruzko informazio faltsua edo engainagarria transmititzea, datu faltsuak edo engainagarriak ematea, hori egiten duen pertsonak baldin badaki edo jakin beharko balu faltsuak edo engainagarriak direla, eta, halaber, indizearen kalkulua manipulatzeko egiten den edozein ekintza.

Halaber, merkatu-manipulaziotzat hartuko dira honako jokabide hauek ere:

- a) Pertsona batek edo batzuek adostuta jardutea balore edo tresna finantzario baten, erlazionatutako lehengaien gaineko spot kontratu baten edo emisio-eskubideetan oinarritutako produktu subastatuen eskaintzaren edo eskariaren gain posizio menderatzaile bat ziurtatzeko, eta, horren ondorioz, zuzenean edo zeharka erosteko edo saltzeko prezioak finkatzea edo negoziazio-baldintza ez-ekitatiboak finkatzea.
- b) Balore edo tresna finantzario bat merkatua irekitzeko edo ixteko unean saltzea edo erostea, irekierako edo itxierako kotizazioetan oinarrituta jarduten duten inbertsiogileak erratzera eramateko ondorioarekin.
- c) Merkatu edo negoziazio-sistema batean aginduak ematea, aginduak ezeztatzea edo aldatzea barne, eskuragarri dagoen edozein negoziazio-metodoren bitartez, elektronikoak, algoritmikoak eta maiztasun handiko negoziazio-estrategiak barne, goiko a) edo b) letretan aurreikusitako ondorioen bat baldin badu:
- merkatuaren edo negoziazio-sistemaren funtzionamendua asaldatzen duelako edo horretara eraman dezakeelako;
 - pertsona batzuei merkatu edo sistemako benetako aginduak identifikatzea eragozten dielako, edo horretarako bide ematen duelako, barnean hartuz aginduen liburua gehiegi kargatzen edo desegonkortzen duten aginduak sartzea;
 - tresna finantzario baten eskaintzari, eskariari edo prezioari buruzko seinale faltsu edo engainagarri bat sortzen duelako edo sortzen laguntzen duelako, batez ere joera bati hasiera emateko edo joera areagotzeko aginduak emanez.
- d) Komunikabide tradizional nahiz elektronikoetarako sarbide puntuala edo aldizkakoa baliatzea balore edo tresna finantzario bati, erlazionatutako lehengaien gaineko spot kontratu bati edo emisio-eskubideetan oinarritutako produktu subastatuei buruzko iritzi bat zabaltzeko, edo, zeharka, horien jaulkitzaileari buruzko iritzia emateko, balore edo tresna finantzario horri buruzko posizioak hartu ondoren eta, beraz, balore edo tresna finantzario, erlazionatutako lehengaien gaineko spot kontratu edo emisio-eskubideetan oinarritutako produktu subastatu horri buruz emandako iritziak izan duen eraginaren onura jaso ondoren, interes-gatazka horren berri eman gabe iritzi publikoari, modu egoki eta eraginkor batez.
- e) Bigarren mailako merkatuan emisio-eskubideak edo erlazionatutako deribatuak erostea edo saltzea, enkantea egin aurretik 1031/2010 (EB) Erregelamenduaren arabera, eta, ondorioz, produktu subastatuen adjudikazio-prezioa maila anormal

- edo artifizialean finkatzea edo enkanteetako eskaintzagileak nahastea edo engainatzea.
- f) Ekonomia Ministerioak edo Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak prezioen osaera askearen kontraktatzat jotzen edo deskribatzen duen oro.
 - g) Lehengaien gaineko spot kontratuak, energia-handizkarien produktuak ez direnean, transakzioak, aginduak edo jarduketak eragina badu edo izan badezake merkatu arautuetan, NSM edo NSAetan negoziatzen diren balore negoziagarrien edo tresna finantzarioen balioan, edo aurreko horien mendeko balioa duten edo horietan eragina duten tresna finantzarioen prezioan (esate baterako, Credit Default Swap edo Diferentzia bidezko Kontratu Finantzarioak).
 - h) Tresna finantzarioak, deribatuen kontratuak edo kreditu-arriskua transferitzeko tresna deribatuak barne, transakzioak, aginduak, eskaintzak edo jarduketak eragina duenean edo izan dezakeenean tresna horien prezioaren edo balioaren arabera prezioa edo balioa ezartzen zaion lehengaien gaineko spot kontratu baten prezioan edo balioan.
 - i) Indizeei buruzko jarduerak (benchmark¹³).

¹³ Ikus II. eranskineko 5. definizioa.

II. KAPITULUA MERKATU-ABUSUA SUSMARAZTEN DUTEN ERAGIKETAK DETEKTATZEA ETA JAKINARAZTEA.

14. artikulua. Aplikazio eremua

Entitateek mekanismo, sistema eta prozedura efikazak ezarriko eta gordeko dituzte, merkatu-abusu izateko susmagarri diren aginduak eta eragiketak detektatzeko.

1. Aplikazio-eremu subjektiboa: Eragiketa susmagarriak detektatzeko obligazioak, JABE erregelamenduari lotutako pertsoneri ez ezik, balore eta tresna finantzarioak jasotzen eta tratatzen esku hartzen duten alorrei, batzordeei eta pertsoneri ere eragingo die, baita eragiketa susmagarriei buruz sor litezkeen espedienteak izapidetzen parte hartzen dutenei ere.
2. Aplikazio eremu objektiboa: Honako hauei aplikatuko zaie detektatzeko eta jakinarazteko obligazioa:
 - a) merkatu arautu batean negoziatzera onartutako tresna finantzarioei, edota araututako merkatu batean negoziatzeko onarpen-eskaera eginda daukatenei;
 - b) NSM batean negoziatzera onartutako tresna finantzarioei, edota NSM batean negoziatzeko onarpen-eskaera eginda daukatenei;
 - c) NSA batean negoziatutako tresna finantzarioei;
 - d) a), b) edo c) letretan bildu gabeko tresna finantzarioei, baldin eta haien prezioa edo balorea letra horietan aipatutako tresna finantzarioen mende badago, barnean hartuta –ez modu eskusiboan– kreditu-arriskuaren permutak eta diferentziengatiko kontratuak.

Horrez gain, merkatu-manipulazioarekin loturik, kontuan hartu beharko dira:

- a) lehengaien gaineko eskurako kontratuak, handizkako produktu energetikoak ez direnak, non eragiketak, aginduak edo jokabideak eraginen bat badu, izan nahi badu edo izan ahal badu 2. zenbakian aurreikusitako tresna finantzarioaren prezioan edo balorean;
- b) edozer eratako tresna finantzarioetan, kreditu-arriskua transferitzeko deribatuen kontratuak edo tresna finantzarioa deribatuak barnean hartuta, baldin eta eragiketak, aginduak, eskaintzak edo jokabideak eraginik badu edo izan badezake lehengaien eskurako kontratu baten prezioan edo balorean, prezioa edo balorea tresna finantzarioen prezioaren edo balorearen mende daudenean; eta
- c) erreferentzia-indizeei buruzko edozer jokabide.

Nolanahi ere den, detektatzeko eta jakinarazteko aginduak edo eragiketak Kutxabankek eta CajaSurrek izapidetuak izango dira, dela bezeroen kontutik (zuzendariak eta enplegatutak barne), dela entitateen euren kontutik, eta berdin izango du negoziazio-zentro batean egiten den ala ez esandako eragiketa, agindu edo jarduera hori.

15. artikulua. Eragiketa susmagarriak detektatzea



Merkatu-abusua estal dezaketen eragiketak identifikatzeko, ondoren zehaztutako prozedura hauek har daitezke kontuan.

1. Detekzio orokorreko prozedura: Prozedura hori aplikatzekoa izango da baloreen eta tresna finantzarioen aginduak edo eragiketak jasotzen eta tratatzen esku hartzen duten sailetan, batzordeetan eta pertsonetan.
2. Detekzio zentralizatuko prozedura: Prozedura hori Betetze Funtzioak gauzatuko du, IV. eranskinean jasotako zantzuei jarraikiz.

16. artikulua. Eragiketa susmagarriak aztertzea eta jakinaraztea

Betetze Funtzioak bi prozedura horien bidez detektatutako eragiketak aztertuko ditu, eta egoki iritzitako behar adina informazio gehigarri eskuratu ahal izango du. Eragiketa bakoitzari espediente bat irekiko zaio.

Analisia aztertzeko, Betetze Funtzioak txosten bat prestatuko du, dagozkion oharrekin.

Araudia Betetzeko eta Taldearen Kontroleko Zuzendaritzak erabakiko du ba ote den susmo arrazoiturik pentsatzeko agindu edo eragiketa batek, tresna finantzarioa bati dagokionez, informazio pribilegiatudun eragiketa edo merkatu-manipulazioa itxura ote duen, edo informazio pribilegiatuarekin edo merkatua manipulatu jar duteko eginahala ote den, eta, horrenbestez, jakinaren gainean ipini behar ote den Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala. Kasu horretan, Betetze Funtzioak horretarako prestatuko formularioa beteko du, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari helaraziko dio, hark zehaztutako prozedurari jarraikiz.

III. KAPITULUA INFORMAZIO PRIBILEGIATUAREN TRATAMENDUA.¹⁴

1. atala. Lotutako pertsonen eginbehar orokorrak

17. artikulua. Abstenitzeko eginbeharra

Lotutako pertsonak, informazioa dutenean eta informazio hori pribilegiatua dela dakitenean edo jakin beharko luketenean, galarazita edukiko dute:

- a) Informazio horretan oinarrituta, edozein eratako aginduak edo eragiketak prestatzea edo egitea, balore negoziagarriekin edo tresna finantzarioekin, edo edonolako kontratuekin, merkatu arautu, NSM edo NSA batean negoziatuak izan edo ez.

Informazioak aipatzen dituen balore negoziagarri edo tresna finantzarioei buruzko aginduak ezeztatzea edo aldatzea, agindua pertsonak informazio hori izan aurretik emandakoa denean.

1310/2010 Erregelamenduaren (EB) arabera egindako emisio-eskubideen enkanteak, edo horietan oinarritutako produktuen enkanteak direnean, informazio pribilegiatua erabiltzearen barruan sartuko da, halaber, eskaintza bat norberaren izenean edo hirugarren baten izenean egitea, aldatzea edo ezeztatzea.

Alde horretatik, abstenitzeko betebeharrak honako eragiketa hauei eragiten die: informazio pribilegiatua eskuratu duen eta erregelamenduari lotuta dagoen pertsonarekin erlazionatutako pertsonak. Baldin eta informazio pribilegiatuak Kutxabank eta Cajasur entitateek jaulkitako tituluei egingo balie erreferentzia, JABE erregelamenduaren 14. definizioa hartuko da kontuan, eta bestelako sozietateei erreferentzia egiten badie, berriz, JABE erregelamenduaren 12. eta 19. definizioetan ezarritakoa. Ezohiko kasuetarako, betiere behar bezala justifikaturik eta ez badute arriskurik sortzen informazio pribilegiatua gordetzeari dagokionez, ezohiko prozedura bat dago aurreikusita, zeinaren bidez Betetze Funtzioak baimendu ahal izango baitu eragiketa, alde aurretik analisisa eginda.

Aurreko horretatik salbuetsita geratuko dira:

- (i) existitze hutsak informazio pribilegiatu bihurtzen dituen eragiketak prestatzea eta egitea;
 - (ii) balore negoziagarriak edo tresna finantzarioak erosteko edo lagatzeko obligazio mugaeguneratu bat betetzeko egiten diren eragiketak, baldin eta obligazio hori pertsonak informazio pribilegiatua eskuratu aurretik sinatutako akordio batean jasota badago, eta Betetze Funtzioari jakinarazi bazaio;
 - (iii) aplikatzekoa den araudiarekin bat egiten diren bestelako eragiketak.
- b) Informazio pribilegiatua hirugarrenei komunikatzea, laneko, lanbideko edo karguko ohiko eginkizunetan dihardutenean izan ezik.

¹⁴ Ikus Jokabidea Arautzeko Barne Erregelamenduaren 12. artikulua

- c) Informazio hori oinarri hartuta hirugarren bati balore negoziagarriak edo tresna finantzarioak eros edo laga ditzala gomendatzea, edo erostera edo lagatzera bultzatzea.
- d) Hirugarren bati gomendatzea informazio horretan aipatzen diren balore negoziagarriei edo tresna finantzarioei buruzko aginduak ezeztatu edo aldatzea, edo horretara bultzatzea.

18. artikulua. Babesteko eginbeharra

1. Informazio pribilegiatua baliatzen duten lotutako pertsonak babesteko eginbeharra dute, agintari judizial eta administratiboei jakinarazteko eta laguntzeko eginbeharraren kalterik gabe.

Lotutako pertsonak, entitateak inplikaturik dauden edozer eratako eragiketa juridiko edo finantzarioen azterketa edo negoziazio faseetan, baldin eta eragiketa horrek nabarmen eragin badezake eragindako baloreen edo tresna finantzarioen kotizazioan, behartuta egongo dira informazioaren ezagutza entitate barneko edo kanpoko pertsona jakin batzuetara bakarrik mugatzera –hau da, ezinbestekoak diren eta bakarrik–, eta ez diote entitateko transmitituko informazio hori bestelako sailei edo gainerakoei, honako salbuespen hauekin:

- a) dagokion erabakitzeko prozesuaren esparruan, entitateen antolaketa-egituraren barruan, hierarkia mailan gaineratik dauden pertsonen eta, ondorioz, goiko egitura erkide gisa definitu daitezkeenari. Komunikazio arduradunak jakinaren gainean ipiniko du Betetze Funtzioa. Betetze Funtzioa jakinaren gainean ipintzen denean, gai horri buruzko funtzioak egokiro betetzeko.
- b) Legez Betetze Funtzioa jakinaren gainean ipintzen denean, gai horri buruzko funtzioak egokiro betetzeko.
- c) Betetze Funtzioak espresuki baimena ematen duenean, eta baimen horretan ezarritako baldintzetan.
- d) Legez aurreikusitako gainerako kasuetan.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoa aplikatuz, neurri egokiak hartuko dituzte informazio hori ez dadin abusuz edo desleial erabili. Informazio pribilegiatua abusuz edo desleial erabiliko balitz, haren berri duen edonork berehala ipini beharko du jakinaren gainean Betetze Funtzioa.

Betetze Funtzioak informazio gehigarria eskatu ahal izango dio, entitateen barruan izandako informazio-transmisioaren zirkuituari buruz, informazio pribilegiatuaren existentziaren berri eman dion edozein arduraduni.

2. Bereizitako areetako arduradunek behar diren segurtasun-neurriak ezarriko dituzte kanpoko pertsonak ez daitezkeen sar informazio pribilegiatua duten euskarri fisiko eta telematikoen.
3. Lotutako pertsona batek bere lanaren, profesioaren edo ahalmenen eginkizun normaletan eragindako zundaketak edo merkatu-prospekzioak¹⁵ ez dira izango

¹⁵ Ikus II. eranskineko 17. definizioa.

babesteko eginbeharra ez betetzea, baldin eta zundaketa horiek betetzen badituzte legeak gai horretarako ezarritako baldintzak.

19. artikulua. Komunikatzeko eginbeharra

1. Informazio pribilegiatua baliatzen duten lotutako pertsonak Betetze Funtzioari komunikatu beharko diote, lehenbailehen, zuzenean nahiz bere saileko edo bereizitako areako arduradunaren bidez.
2. Baldin eta unitateren batean proiekturen bat edo eragiketaren bat hasiko balitz, balore edo tresna finantzario baten kotizazioan eragin dezakeena, eta, horrenbestez, informazio pribilegiatu gisa har daitekeena, arduradunak ahalik eta bizkorren ipiniko du jakinaren gainean Betetze Funtzioa.
3. Informazio pribilegiatua pertsona berriei –dela entitatekoei, dela entitatez kanpokoei– jakinarazten zaien bakoitzean, informazio-emaleak ahalik eta bizkorren jakinaren gainean ipini beharko du Betetze Funtzioa, dela zuzenean, dela bere saileko edo bereizitako areako arduradunaren bidez.
4. Jakinarazpen horiek intranetean argitaratutako formularioaren bidez egingo dira.

2. atala. Informazio pribilegiatuaren tratamendua

20. artikulua. Iniziatuen zerrenda

1. Betetze Funtzioak inizatuen zerrenda bat prestatu eta eguneratuko gorde beharko du, inbertsio-zerbitzuak ematean eskuratutako informazio pribilegiatua daukan balore edo tresna finantzario bakoitzari buruz, informazio horretarako sarbidea izan duten pertsonen izenekin eta bakoitzaren datarekin.
2. Betetze Funtzioak espresuki ohartaraziko ditu aurreko lerrokadako zerrendetan bildutako pertsonak, informazio horren ezaugarriei eta haien konfidentzialtasun betebeharrari buruz, eta jakinaraziko die ezingo dutela informazio hori erabili. Halaber, erabilera desegokiaren ondoriozko arau-hausteak eta zehapenak ere azalduko dizkie. Era berean, interesatuei informatuko die erregistroan edo zerrendan bilduta daudela, eta Betetze Funtzioari jakinarazteko obligazioa dutela, informazioa beste inori transmititzen baldin badiote.
3. Sei urtez gorde beharko dira aurreikusitako erregistroetan eta zerrendetan inskribatutako datuak, betiere azkenekoz erregistratu edo eguneratu zirenetik aurrera. Era berean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren esku ipini beharko dira, hark eskatzean.

21. artikulua. Informazio pribilegiatua kanpoko pertsonari transmititzea

Eragiketa egokiro garatzeko edo erabakiak hartzeko, beharrezkoa izango balitz entitateetatik kanpoko hirugarren pertsonen esku-hartzea, bereziki aholkularien kasuan eragiketa korporatiboetan (bestelako finantza-entitateak, aholkularitza-etxeak edo aholkulariak), Betetze Funtzioari jakinarazi beharko zaio horiek informazio pribilegiatua

eskuratu dutela, eta ezinbestekoa izango da konfidentzialtasun-konpromiso bat sinatzea, gai honekin lotuta aplikatzekoak diren ardura neurriak bilduta. Konpromiso horren kopia bat helaraziko zaio Betetze Funtzioari.

22. artikulua. Bereizitako areen kontzeptua eta zehaztapena

1. Bereizitako areatzat hartzen dira balore-merkatuekin lotutako jarduerak garatzen dituzten entitatearen sailak edo areak, eta, erregelamendu honekin bat, elkarren artean beharrezko bereizketa gorde beharko dute, haien artean interes-gatazkak saihesteko eta informazio pribilegiatuaren erabilera eta transmisio desegokiak galarazteko, bermatuz haietako bakoitzak modu autonomoan hartzen dituela erabakiak.

2. Entitate bakoitzeko Administrazio Kontseiluak zehaztuko ditu bereizitako areak, baita haietako bakoitzean bilduta eta erregelamenduari lotuta dauden pertsonak ere, Betetze Funtzioak aurkeztutako proposamena kontuan hartuta.

Zehazki, bereizitako areetan bildu beharko dira, gutxienez, zorro propioa duten kudeaketa jarduerak garatzen dituzten sailak, besteren zorroa kudeatzen dutenak eta analisisian jarduten dutenak.

3. Erregelamenduari lotutako pertsonak jakin beharko dute zer area bereizitakoak diren, baita zein diren erregelamenduari lotutako gainerako pertsonak eta arduraduna ere. Horretarako, Betetze Funtzioak bereizitako areen zerrenda eguneratua argitaratuko du intranet korporatiboan, baita haietako bakoitza osatzen duten pertsonen zerrenda ere.

4. Bereizitako area jakin batean zerbitzu ematen duten pertsonak, edozer dela ere haien maila, konpromiso-dokumentu bat sinatu beharko dute, dagokion eremu bereizitakoa berriaz erreferentzia eginez eta hitzeman ez dutela erabiliko euren onuran beren egitekoak direla medio eskuratu duten informazio pribilegiatua, eta ez diotela bereizitako areaz kanpoko inori transmitituko.

5. Erregelamenduari lotutako pertsonen jardunbideak bermatuko du modu autonomoan kudeatzen dela informazio pribilegiatua eta halaxe hartzen direla erabakiak ere, haiei dagokien bereizitako arearen barruan Betetze Funtzioak identifikatuta eta eguneratuta edukiko du bereizitako areen gainetik dagoen egitura erkidea; hau da, bereizitako areen arduradunen gainetik hierarkikoki dauden lotutako pertsonen eta organoen multzoa, barnean hartuta esandako arduradun horrek edo hark izendatutako pertsonaren batek parte hartzen duen batzordeak edo kide anitzeko organoak.

23. artikulua. Bereizitako areetako arduradunak

Bereizitako area bakoitzak arduradun bat izango du, eta hari egokituko zaio, bere eskumenen esparruan, kontu egitea betetzen dela kapitulu honetan aurreikusitakoa. Bereizitako areen arduraduntzat hartuko dira bereizitako areak osatzen dituzten sailtako zuzendariak edo area horiek hartzen dituztenetakoak, eta oinarrizko funtzio hauek izango dituzte:

a) Kontu egitea betetzen dela JABE erregelamenduaren IV. tituluan aurreikusitakoa.

- b) Betetze Funtzioari helaraztea, hala dagokionean, berari dagokion bereizitako areako langileek egindako informazio pribilegiatuaren komunikazioak.
- c) Beharrezko segurtasun-neurriak ezartzea, informazio pribilegiatua duten euskarri fisikoak eta telematikoak gordeta gera daitezen bereizitako areez kanpoko pertsonen eskuetatik.
- d) Betetze Funtzioarekin batera, beharrezko informazio-hesiak ipintzea bereizitako areen eta entitatearen gainerako sailen artean.
- e) Betetze Funtzioari jakinaraztea informazio pribilegiatuaren transmisioak.
- f) Betetze Funtzioari jakinaraztea bere ardurapeko bereizitako arean izandako pertsonen altak eta bajak. Era berean, bere ardurapeko bereizitako areako pertsonak jakinaren gainean ipini beharko ditu, JABE erregelamenduaren 20.2 artikuluan aurreikusitako inguruabarrei dagokienez.
- g) JABE erregelamenduan jasotako gainerako funtzioak.

24. artikulua. Informazio-hesiak

Hesizat hartzen dira bereizitako areen hermetikotasuna bermatzeko ezartzen diren elementu fisikoak, elektronikoak eta bestelakoak, baita helburu horrekin hartutako prozedurak ere.

Bereizitako areen arduradunek eta Betetze Funtzioak ezarriko dituzte bereizitako area bakoitzaren eta entitatearen gainerako areen arteko hesiak, esku hartzen duten eragiketen eta baliatzen duten informazioaren arabera.

Honelakoak izan litezke hesi horiek:

1. Hesi fisikoak, bereizketa fisikoa eta murriztutako areak biltzen dituztenak.

Bereizitako areak, ahal den neurrian, eraikin edo solairu bereizietan egongo dira, eta, hala ez baldin bada, bestelako elementu fisikoak baliatuko dituzte bereizteko, hala nola manparak edo isolatzeko balio duten tankerakoak.

Diruzaintza Aretoaren kasuan, murriztuta geratuko da hartara sartzeko espazio fisikoa, sarrera mugatzen duten kontrol-sistemak dituzten ateen bidez.

2. Informazioa eskuratzeko hesiak, dokumentu eta artxibo fisikoak eta elektronikoak babesteari erreferentzia egiten diotenak. Honako printzipio orokor hauek hartuko dira kontuan:

- Entitateetako langileek, informazio pribilegiatua eskura badute, beharrezko neurriak hartu beharko dituzte hura egokiro babesteko, eta saihestekoa izango da informazio hori eskuratu ezin duten pertsonen eskura egotea eta informazio hori behar ez bezala igortzea
- Bereizitako areetako arduradunek beharrezko neurriak hartuko dituzte, informazio pribilegiatua duten dokumentuak, artxiboak edo bestelako euskarriak toki seguruetan eta giltzapean gorde daitezen erabiltzen ez diren garaian; hala, saihestuko da informazio hori behar ez bezala eskuratzeko edo erreproduzitzea. Era berean, informazio pribilegiatua duen proiektu edo eragiketaren batean ordenagailuak erabiltzean, sarbide murriztutako programak erabili beharko dira;

hau da, haietan esku hartzen duten areetako pertsonen bakarrik erabil ditzaketenak.

Informazio pribilegiatua duten eragiketak edo proiektuak izanez gero, honako hesi hauek ipiniko dira:

- Bereizitako area bakoitzeko arduradunek egokiak diren kontrol-neurriak ipini beharko dituzte, esandako eragiketa edo proiektu horietarako beharrezkoak diren pertsonen bakarrik jakinarazteko (entitatearen barrukoak edo kanpokoak).
- Proiektu edo eragiketa bakoitzaren hasieran, dagokion areako arduradunak gako-izen bat emango dio, harekin identifikatzeko, zeina esku hartzen duten pertsona bakoitzari jakinaraziko baitzaio. Gako-izen hori zehaztu ostean, eragiketa edo proiektua identifikatzeko baliatuko da, eta, hala, ez da erabiliko eragindako baloreen edo sozietateen izendapen propioa. Aurrekoa gorabehera, dela erregistro-liburuetan, dela kanpo-garrantzia izan dezaketen entitateen dokumentu ofizialetan, zein bere izen propioarekin identifikatuko dira sozietateak edo baloreak.
- Eragiketak garatzeko baliatzen diren dokumentuetan, jakinarazi beharko da, ikusteko moduko tokian, dokumentu konfidentzialak direla, barne erabilerarako bakarrik.

Azkenik, kontu berezia hartuko da material konfidentziala bilera-geletatik erretiratzean, baita arbeletako eta tankerako euskarrietako oharretan eta diagrametan ere, bilera horiek amaitu ostean.

3. Komunikazio-hesiak, komunikazio idatziak, elektronikoak edo telefonikoak kontrolatzeko neurriak biltzen dituzte, baita iruzkinak eta komunikazioak murriztea ere, besteak beste. Beste hainbat prezepturen artean, kontuan hartu beharko dira abstentzio-eginbeharra, bai eta informazio pribilegiatua gordetzeko eta komunikatzean kontuan hartu beharrekoa ere.

- Informazio pribilegiatua duten proiektuen edo eragiketen alderdi bakar bat ere ezingo da aitatu toki publikoetan, ezta informazio horren berri eduki ezin duten pertsonen entzuteko arriskua dagoen tokietan ere.
- Ahalik eta segurtasun-neurri zorrotzenak hartu beharko dira, arriskutsuak izan litezkeen bitartekoen bidez komunikazioak egiteko garaian, hala nola telefono mugikorrez, faxez edo posta elektronikoz. Zehazki, ez da informaziorik bidaliko une jakin batean inor gabe dauden terminaletara, edo informazioa jaso behar ez duten pertsonen eskura egon daitezkeenetara.

3. atala. Baloreen eta tresna finantzarioen jaulkitzaile-izaeratik eratorritako obligazioak

25. artikulua. Baloreen eta tresnen jaulkitzaile-izaeratik eratorritako obligazioak

1. Entitateek informazio pribilegiatua izanez gero, jaulki dituzten tresna finantzarioei eragiten diena eta Espainiako merkatu arautu baten negoziazio-objektu dena, ahalik eta bizkorren ipini beharko dute jakinaren gainean Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala.

Informazio pribilegiatua azkar hedatuko dute jaulkitzaileek, baldintza batzuekin, eta hauek nabarmentzen dira:

- Publiko egin behar da, ahalik eta azkarren.
 - Inbertitzaileek konfiantza duten tresnak erabilia.
 - Informazioa marketinarekin nahasi gabe.
 - Osorik eta argi, bereizkeriarik gabe eta doan.
 - "Informazio pribilegiatu" gisa markatuz beti informazioa.
 - Jaulkitzailearen sozietate izena jasoz.
 - Osotasuna eta konfidentziasuna bermatzen duten baliabide elektronikoak erabiliz.
2. Era berean, jaulkitzaileari buruzko gainerako informazio finantzarioak edo korporatiboak ere jakinarazi beharko dira, baita haren balore edo tresna finantzarioen gainekoak ere, baldin eta legezko edo arauzko xedapenen batek behartzen baditu Espainian publiko egitera, edo ezinbestekotzat jotzen badute inbertsiogileen artean zabaltzea, interes berezia dela eta.

Bestelako Informazio Garrantzitsua (BIG) hala informazio arautuari (xedapen legalekin publiko egingo dena) nola ez-arautuari (jaulkitzaileak inbertitzaileentzat interesgarria dela uste duena) buruzkoa izango da.

3. Informazio pribilegiatuaren eta bestelako informazio garrantzitsuaren arteko alde nagusiak eskema¹⁶ honetan azaldu dira:

Informazio pribilegiatua	Bestelako informazio garrantzitsua (ez-arautua)
Prezioari era nabarmenean eragin diezaioke	Prezioari ezin dio era nabarmenean eragin
Iniziatuen zerrenda behar da	Ez da iniziatuen zerrenda behar
Eragiketak egiteko debekua IP izanez gero	Ez dago eragiketak egiteko debekurik
Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari bidaltzeko obligazioa eta bere webgunean argitaratzekoa	Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari bidaltzeko obligazioa, inbertitzaileentzat interesgarritzat jotzen denean soilik

4. Entitateek ziurtatuko dute informazio pribilegiatua edo garrantzitsua ezagutarazteko moduak baimentzen duela publikoak informazio hori bizkor eskuratzea eta hari buruzko ebaluazio osoa, zuzena eta egokia egin ahal izatea.
5. Entitateen solaskide kualifikatuei dagokie Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinaraztea erakundean sortutako informazio garrantzitsua. Komunikazioaren edukia egiazkoa, argia, osoa, eta, informazioaren izaerak hala eskatzen badu, kuantifikatua izan beharko da, eta ezingo du nahasmenik edo engainurik eragin jakinarazi beharreko egitatei edo egintzei buruz.
6. Entitateek webgunean argitaratuko dute nahitaez argitaratzera behartuta dauden informazio pribilegiatua, eta bost urteko epean eduki beharko dute gutxienez

¹⁶ V. eranskinean jaso dira informazio pribilegiatuaren eta bestelako informazioaren tipologiak, 2020ko urtarrilaren 29ko Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren komunikatuan agertzen diren eran.

argitaratuta. Webguneak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- erabiltzaileek, webgunean aurkeztutako informazioaren bidez, baldintza ez-diskriminatzaileetan eta doan eskuratu behar dute informazioa;
- erabiltzaileek erraz identifikatzeko moduko atal batean topatu behar dute informazioa;

26. artikulua. Atzerapena informazioa zabaltzean

Entitateek atzera dezakete informazio pribilegiatuaren zabalkunde publikoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 596/2014 (EB) Erregelamenduaren 17.4 eta 17.5 artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

Kutxabankek, jaulkitzaile gisa, eta CajaSurrek, etorkizunean hala izango balitz, beren ardurapean atzeratu ahal izango dute aldian-aldian argitaratu beharreko informazio pribilegiatua argitaratzea, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

- a) berehalako zabalkundeak jaulkitzailearen interes legitimoei kalte egin ahal izatea;
- b) zabalkundea atzeratzeak ez badu induzitzen publikoa nahasmendura edo engainura;
- c) jaulkitzailea informazioaren konfidentzialtasuna bermatzeko moduan baldin bada.

Denboran luze jotako prozesu bat izanez gero, hainbat etapatan gauzatzen dena, eta harekin hainbat inguruabar edo gertakari jakin bat lortu nahi baldin bada edo lortzen bada, jaulkitzaileak bere ardurapean atzeratu ahal izango du prozesu horiekin lotutako informazio pribilegiatua, betiere a), b) eta c) letretan xedatutakoari jarraikiz.

Informazio pribilegiatua zabaltzeko prozesua atzeratuko balitz, kontuan izanda aurretik azaldutakoa, informazioa publiko egin bezain pronto jarri beharko da jakinaren gainean Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala. Alde horretatik, ez da behartuta egongo atzerapen hori baimentzen duten baldintzen justifikazioa helaraztera, nola eta ez duen espresuki halakorik eskatzen.

Horrez gain, kreditu- edo finantza-entitate gisa, Kutxabankek jaulkitzaile gisa –baita CajaSurrek ere, etorkizunean hala izango balitz– beren ardurapean atzeratu ahal izango dute une jakin bateko likidezia-faltaren arazoari buruzko informazio pribilegiatua, eta, bereziki, banku zentral edo mailegu-emaila baten aldetik aldi baterako likidezia hornidura jasotzeari buruzkoa, baldin eta honako baldintza hauek guztiak betetzen badira:

- a) informazio pribilegiatua zabaltzeak arriskua eragiten badio jaulkitzailearen egonkortasun finantzarioari eta finantza-sistemari;
- b) interes publikoari komeni baldin bazaio zabalkundea atzeratzea;
- c) informazioaren konfidentzialtasuna bermatu ahal izatea; eta
- d) eskumena duen agintaritzak baimendu baldin badu atzeratzea, a), b) eta c) letretan ezarritako baldintzak bete ostean.

V. TITULUA. ANTOLAKETA-EGITURA ETA ERREGELAMENDUAREN KUDEAKETA

27. artikulua. Antolaketa-egitura eta funtzioen banaketa

1. Administrazio Kontseilua: Araudia betetzeko kudeaketaren maila goreneko organoa da; hori dela eta, hari dagokio Betetze Funtzioaren alderdi estrategikoak definitzea eta berrikustea, eta aldian-aldian dokumentuan bertan islatutako alderdiei buruzko informazioa jasotzea. Araudia Betetzeko eta Taldea Kontrolatzeko Zuzendaritzari dagokio Betetze Funtzioaren kudeaketa eta ardura.

JABE erregelamenduari dagokionez, honako egiteko hauek izango ditu Administrazio Kontseiluak:

- JABE erregelamendua onartzea;
 - Araudia Betetzeko eta Taldea Kontrolatzeko Zuzendaritzak, JABE erregelamenduari lotuta, helarazten dizkion gaien berri izatea;
 - JABE erregelamendua kontrolatzeko eta betetzeko egitura sustatzea eta ezartzea;
 - Araudia Betetzeko eta Taldea Kontrolatzeko Zuzendaritzak helarazita, JABE erregelamendua ez betetzeko arriskuak kudeatzeko prozedurak eta ekintza planak onartzea;
2. Araudia Betetzeko eta Taldea Kontrolatzeko Zuzendaritza: Haren egitekoa da Portaera Korporatiboaren Areak JABE erregelamenduaren betetze-mailari helarazten dizkion txostenak eta komunikazioak jasotzea, aztertzea eta, hala badagokio, onartzea, eta, horrez gain, interes-gatazkak konpontzea eta erregelamendua betetzen dela zaintzea.

Horrenbestez, Araudia Betetzeko eta Taldea Kontrolatzeko Zuzendaritzak ikuskatze konkretua egingo dio JABE erregelamenduari, zuzenean erabakiak hartuta edo erregelamenduan bertan aurreikusitako funtzioak eginez; honako hauek, zehazki:

- Portaera Korporatiboko Unitateak proposatuta, JABE erregelamenduari lotuta egon behar duten funtzioak eta entitateetako sailak onartzea, Administrazio Kontseiluari helarazteko;
- zehaztea baloreen eta tresna finantzarioen gaineko zer eragiketa jakinarazi behar zaizkion Betetze Funtzionarioari, euren zenbatekoa edo arriskua dela eta, JABE erregelamenduari lotutako pertsonen exekutatu aurretik;
- txostenak eta gomendioak egiten, argitaratzen eta zabaltzen esku hartzen duten pertsonen egin nahi dituzten eragiketak aztertzea eta, aztertu ondoren, onartzea edo baztertzea, betiere exekutatu baino lehen, baldin eta eragiketa horiek gomendioen kontrakoak badira;
- entitateetako bereizitako areak berrikustea eta proposatzea;
- bereizitako areetako arduradunekin batera, bereizitako areen eta entitatearen gainerako tokien arteko hesiak zehaztea;
- bereizitako area bati baino gehiagori eragiten dioten interes-gatazkak

konponduko dituen pertsona edo organoa izendatzea, betiere haien arduradun hierarkikoak konpontzen ez dituenak (JABE erregelamenduaren 32.1 artikulua);

- Administrazio Kontseiluari jakinaraztea JABE erregelamendua betetzean sortzen diren gorabehera garrantzitsu guztiak;
- era berean, Administrazio Kontseiluari txosten bat helaraziko dio sei hiletik behin, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak edo balore-merkatuaren esparruan eskudun den edozer agintaritzak egindako erregulazio ekimenen berri emanez; era berean, JABE erregelamenduaren betetze-mailari buruzko ebaluazioa ere helaraziko dio, gorabehera nagusiak jasoz.

3. Portaera Korporatiboko Unitatea arduratuko da JABE erregelamenduak eta hura garatzeko arauak esleitutako gainerako egitekoez. Bereziki:

- JABE erregelamenduko altak eta bajak jakinaraziko dizkie lotutako pertsoneri; kontu egingo du, nahitaezko dokumentazio guztia egokiro beteta eta artxibatuta egon dadin.
- Berariaz ohartaraziko ditu informazio pribilegiatuaren erregistroan bildutako pertsonak, esandako informazio horiek tratatzeko dituzten baldintzei buruz.
- Egiaztatuko du norbere kontura edo bezeroen kontura egindako aginduek eta eragiketek ez dutela informazio pribilegiatua behar bezala jakitearen eraginik, ezta JABE erregelamenduari lotutako pertsonen eragiketa pertsonalek ere, eta, finean, egiaztatuko du informazio-hesiek ondo funtzionatzen dutela.
- JABE erregelamenduaren eta harekin lotutako galdetegiaren bertsio eguneratuak gordeko ditu intranet korporatiboan; halaber, JABE erregelamenduak eragindako funtzioen eta sailen xehetasunak ere jasoko ditu, baita bereizitako areen eta haien arduradunen zerrenda ere.
- JABE erregelamenduarekin lotutako artxiboak eta erregistroak eramango ditu, eta beharrezko prozedurak zehaztuko, aurreikusitako komunikazio- eta informazio-beharrizanak koordinatzeko.
- JABE erregelamenduarekin lotutako dokumentazioaren eta kontrolen artxiboa gordeko du gutxienez sei urtez, erabateko konfidentzialtasuna bermatuz, agintaritza judizialarekin eta ikuskatzaitzarekin laguntzeko eginbeharraren kalterik gabe.

Bereziki, erregelamenduari lotutako pertsonen komunikazioei buruzko dokumentazioa jasoko du, baita merkatu-abusu izateko susmagarri diren eragiketa guztiei buruzko analisia ere, aginduaren eta eragiketaren berri jasotako prozedura gorabehera; halaber, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala jakinaren gainean jarri beharra dagoen ala ez zehazten duen azken ondorioa ere jasoko du.

- Erregelamenduarekin lotutako dokumentazioaren eta kontrolen artxiboa gordeko du gutxienez sei urtez, erabateko konfidentzialtasuna bermatuz, agintaritza judizialarekin eta ikuskatzaitzarekin laguntzeko eginbeharraren kalterik gabe.
- Lotutako pertsonak aholkatuko ditu JABE erregelamendua interpretatzeko garaian, bai eta hura aplikatzean sor litezkeen gorabeherak konpontzen ere.

- Lotutako pertsonen ezarritako obligazioak betetzen laguntzeko komunikazio-prozedurak definituko ditu, baita JABE erregelamendua betetzen den ikuskatzeko kontrol-prozedurak ere.

28. artikulua. Informazioa

Aldian-aldian, gutxienez sei hilabetetik behin, Betetze Funtzioak txosten bat helarazi beharko dio Administrazio Kontseiluari edo hark izendatutako organoari, honako hauek jasoz:

- a. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak nahiz balore-merkatuaren arloko beste agintari eskudunen batek burututako ekimen arautzaileen edo bestelako ekimenen laburpena.
- b. Erregelamenduaren betetze-mailaren ebaluazioa, gorabehera nagusiak deskribatuta.

29. artikulua. Erregelamenduaren publikotasuna

Betetze Funtzioak entitateen webguneko intranet korporatiboan edukiko du erregelamendua. Erregelamenduari lotutako pertsona guztiek eskuratu ahal izango dute, eta honako eduki hau izango du:

- a) Erregelamendu hau.
- b) Erregelamenduan aurreikusitako obligazioak betetzeko beharrezko formularioak.
- c) JABE erregelamendua eragindako sailen eta funtzioen zerrenda eguneratua.
- d) Bereizitako areen eta haien arduradunen zerrenda eguneratua.

30. artikulua. Prestakuntza

1. Erregelamenduari lotutako pertsona guztiek jaso beharko dute hari buruzko trebakuntza, indarrean jartzen denean edo lotutako pertsona gisa lanean hastean.
Horrez gain, lotutako pertsona guztiek prestakuntza jasoko dute, Betetze Funtzioak zehaztutako aldizkakotasunarekin.
2. Gainera, entitateek informazio egokia emango diete, betetzen dituzten funtzioen ezaugarriak direla eta, merkatu-abusuak izateko susmagarriak diren eragiketarako detektatzen, aztertzen eta komunikatzen jarduten duten edo jardun dezaketen pertsonen.
3. Lotutako pertsonak behartuta daude prestakuntza jasotzera, erregelamendu hau egokiro betetzeko, eta entitateek programatutako prestakuntza egin beharko dute, halakoak deitzen dituztenean.

31. artikulua. Ez-betetzea

Erregelamendu honetan aurreikusitakoa ez betetzeak dagozkion zehapen penal, administratibo edo profesionalak ezartzea ekarri ahal izango du.



kutxabank

cajasur 

Taldearen Araudia Betetzeko eta Kontrolatzeko Arloa
Jokabide korporatiboa

Langile-arloan, kasu bakoitzean dagokion diziplina-prozedura bideratu ondoren ezarriko dira zehapenak.

32. artikulua. Onarpena eta aldaketa

Erregelamendu hau entitate bakoitzeko Administrazio Kontseiluak onartuko du, Araudia Betetzeko eta Taldea Kontrolatzeko Zuzendaritzak proposatuta.

Aldaketa guztiek prozedura berari jarraitu beharko diote.



I. ERANSKINA

Balore-merkatuko jokabidea arautzeko barne-erregelamendua	
Bertsioa: V01.2021	
Arduraduna	Taldearen Araudia Betetzeko eta Kontrolatzeko Arloa

Data	Onartze organoa	Bertsioa	Egindako aldaketak
2016/06/30	Kutxabanken Administrazio Kontseilua	V01.2016	MARera egokitzea
2016/06/23	CajaSurren Administrazio Kontseilua		
2016/12/29	Kutxabanken Administrazio Kontseilua	V02.2016	Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eskatutako aldaketak
2017/02/23	CajaSurren Administrazio Kontseilua		
2019/03/28	Kutxabanken Administrazio Kontseilua	V01.2019	MiFID II eta BML eguneratzea
2019/04/18	CajaSurren Administrazio Kontseilua		
2021/05/27	Kutxabanken Administrazio Kontseilua	V01.2021	- Hasierako Titulu berri bat txertatu da, sarrera bat, dokumentuaren xedea eta aplikatu beharreko araudia jasotzeko. - Informazio garrantzitsua eta BIG Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazteari buruzko V. eranskina eguneratzea.
2021/07/22	CajaSurren Administrazio Kontseilua		

II. ERANSKINA

DEFINIZIOAK

1. Lehengaien spot kontratua

Spot merkatu batean negoziatzen den lehengai bat hornitzeko edo entregatzeko kontratuak, lehengai azkar entregatzeko transakzioa uztartutakoan, eta tresna finantzarioa ez den lehengai bat hornitzeko edo entregatzeko kontratuak, gerokoen kontratuak barne hartuz, entrega fisikoki egiten denean.

Aldi berean, lehengaien spot merkatu bat zera da, lehengaiak eskudirutan saltzen dituen eta transakzioa uztartu bezain pronto hornitzen edo entregatzen dituen, baita bestelako merkatu ez-finantzarioak ere, hala nola lehengaien gaineko gerokoen merkatuak.

2. Emisio-eskubideak

2003/87/EE Zuzentarauak, emisio-eskubideen merkataritza-araubidea arautzen duenak, biltzen dituen eskakizunen ondoretarako jasotako unitateak.

3. Lehengaien gaineko deribatuak

Lehengaien gaineko produktu deribatuak, 600/2014 (EB) Erregelamenduaren 2(1) artikulua (30) zenbakian emandako definizioarekin bat.

4. Entitate jaulkitzailea

Entitate jaulkitzailea da edozein balore edo tresna finantzario merkatu arautu batean, edo Europar Batasunean egoitza duen NSM edo NSA batean jaulkitzen duena edo jaulkitzeko asmoa duena.

5. Benchmark edo erreferentziako indizeak

Argitaratzen den edo publikoaren esku jartzen den edozein rating, indize edo zifra, aldizka edo erregularitasunez kalkulatzen dena formula bat aplikatuz aktibo edo prezio baten edo gehiagoren gainean, barnean hartuz prezioen estimazioak, interes-tasa errealak nahiz estimatuak, edo bestelako balio edo inkesta batzuk, eta erreferentzia gisa balio duena tresna finantzario batean ordaindu behar den kopurua kalkulatzeko edo tresna finantzario baten balioa zehazteko.

6. Tresnak finantzarioak

2014/65/EU Zuzentarauaren (MiFID II) 4(1) artikulua (15) zenbakian definitutako tresna finantzario guztiak.

7. Erlazionatutako tresna finantzarioak

Tresna finantzarioak erlazionatuak izango dira, horien prezioan eragin estua badute inbertsio bati buruzko txostenaren edo gomendioaren objektu den beste tresna finantzario baten prezioaren gorabeherek, tresna finantzario horren gaineko deribatu bat

barnean hartuta.

8. Lehengaiak

Batzordearen 1287/2006 (EE) Erregelamenduaren 2. artikuluko 1. zenbakian definitutako edozein lehengai.

9. Merkatu arautua

Sistema multilateral bat, merkatuko organo errektore batek kudeatua, sistemaren barruan eta bere arau ez-diskrezionalen arabera, tresna finantzarioak erosteko eta saltzeko hirugarren askok dituzten interes desberdinak biltzen dituena edo biltzeko aukera ematen duena, negoziazioan onartutako tresna finantzarioei buruzko kontratuak egiteko, bere arau edo sistemen arabera, eta onartuta dagoena eta erregulartasunez funtzionatzen duena 2014/65/EB (MiFID II) Zuzentarauaren III. tituluaren ezarritakoarekin bat.

10. NSN

Negoiazio Sistema Multilateralra, inbertsio-zerbitzuetako enpresa batek edo merkatuko organismo errektore batek operatua, sistemaren barruan eta arau ez-diskrezionalen arabera, tresna finantzarioak erosteko eta saltzeko hirugarren askok dituzten interesak bilduz kontratuak egiteko, 2014/65/EB (MiFID II) Zuzentarauaren II. tituluaren ezarritakoarekin bat.

11. NSA

Kontratazio- edo negoziazio-sistema antolatua, multilateralra, merkatu arautua edo NSM ez dena, bonuak eta obligazioak, titulazioak, emisio-eskubideak edo deribatutako erosteko eta saltzeko hirugarren askok dituzten interes desberdinak tratatzen dituena kontratuak egiteko, 2014/65/EB (MiFID II) Zuzentarauaren II. tituluaren xedatutakoarekin bat.

12. Lotutako pertsonarekin familia-harremana duen pertsona

Honako hauek joko dira lotutako pertsonarekin familia-harremana duten pertsonatzat:

- a) Lotutako pertsonaren ezkontidea edo maila bereko harreman afektibo bat duena, estatuko legeriaren arabera;
- b) Lotutako pertsonak bere kargura dauzkan seme-alabak edo seme-alabaordeak;
- c) Lotutako pertsonarekin bizi diren gainerako senitartekoak, eragiketa pertsonala egin baino urtebete lehenago gutxienez berarekin bizi badira.

13. Zuzendaritzako ardurak dituzten pertsonak

Entitate jaulkitzaileko pertsona bat, baldin eta:

- a) Entitateko administrazio-, kudeaketa- edo gainbegiratze-organoko kide bada; edo
- b) Aurreko a) letran aipatutako organoetako kide izan gabe, goi-zuzendaritzakoa bada eta, zuzenean edo zeharka, ohiko sarbidea badu entitate horri buruzko informazio pribilegiaturako, eta entitate horren etorkizuneko bilakaeran eta enpresa perspektibetan eragina izango duten kudeaketa-arloko erabakiak hartzeko eskumena badu.

Kutxabanken eta CajaSurren halakotzat hartuko dira Administrazio Kontseiluko eta Zuzendaritza Batzordeko kideak eta entitateen informazio pribilegiatua maiz eskuratzen duten zuzendaritza-kargudunak.

14. Zuzendaritzako ardurak dituen pertsonarekin lotura estua duten pertsonak

Honako hauek hartuko dira lotura estua duten pertsonatzat:

- a) Ezkontidea edo zuzenbide nazionalean ezkontidearen parekotzat jotzen den pertsona;
- b) Bere kargura dituen seme-alabak, zuzenbide nazionalaren arabera;
- c) Eragiketa egin baino urtebete lehenagotik gutxienez berarekin bizi den beste edozein senitarteko; edo
- d) aurreko a), b) eta c) letretan aipatutako pertsona batek zuzendaritza-kargu bat edo zuzendaritzako ardura duen pertsona juridiko, fideikomiso (trust) edo elkarte bat, edo pertsona horrek zuzenean edo zeharka kontrolatzen duen bat, edo pertsona horren onurarako sortu den bat, edo neurri handi batean pertsona horren interes ekonomiko berdinak dituen.

15. Bitarteko pertsonak

Beren izenean, lotutako pertsonen konturako eragiketak egiten dituzten pertsonak.

16. Onartutako merkatu-praktikak

Onartutako merkatu-praktikatzat hartuko dira bigarren mailako merkatu ofizial batean nahiz gehiagotan egiten diren edo egingo direla espero daitekeen merkatu-praktikak, Europako Balore Merkatuaren Agintaritzak eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onartuta daudenak.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak honako puntu hauek izango ditu kontuan merkatu-praktikak onartzeko:

- a) Dagokion merkatu-praktikaren gardentasun-maila, merkatu osoarekiko.
- b) Merkatuko indarren jarduna ziurtatu, eta eskaintzaren eta eskariaren arteko interakzio egokia zaindu beharra. Ondorio horietarako, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak dagokion merkatu-praktikaren eragina aztertuko du merkatuko parametro nagusiekiko: praktika aurrera eraman aurretik merkatuan dauden baldintzak, saio bakar bateko batez besteko prezio ponderatua edo eguneko itxiera-prezioa.
- c) Merkatuaren indarraren jarduna zaintzeko beharra eta eskariaren eta eskaintzaren arteko interakzio egokia.
- d) Praktika hori zenbateraino egokitzen zaien merkatuko negozio-mekanismoei, eta merkatu horretan parte hartzen dutenei zenbateraino ematen dien aukera aipatutako praktikak sortzen duen merkatu-egoera berriari ondo eta bizkor erantzuteko.
- e) Praktika horrek zenbaterainoko arriskua ekarriko dion, dagokion balore edo tresna finantzarioarekin, zuzenean nahiz zeharka, erlazionatutako Europar

Batasuneko merkatu arautu nahiz ez arautuen integritateari.

- f) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, balore-merkatuaren arloko beste agintari eskudunen batek edo beste erakunde erregulatu batek merkatu-praktika horri buruz egindako edozein ikerketaren ondorioak, eta, bereziki, aipatutako praktikak merkatu-abusua prebenitzeko ezarritako arauak edo xedapenak urratzen dituzenean edo jokabide-kodeak urratzen dituzenean, bai merkatu horretan, bai Europar Batasunean zuzenean nahiz zeharka lotutako merkatuetan.

Merkatuaren egitura-ezaugarriak, eta batez ere, arautua den ala ez, nolakoak diren negoziatutako tresna finantzarioak eta merkatu horretan parte hartzen dutenak, eta, bereziki, inbertsiogile txikien partaidetzak duen garrantzi erlatiboa. Merkatuko praktika bat, eta bereziki merkatu-praktika berria edo emergentea bada, ez da inoiz hartuko praktika onartezintzat Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak lehenago onartu ez duelako bakarrik.

17. Zundaketak eta merkatu-prospekzioak

Transakzio bat iragarri aurretik eta inbertsiogileek transakzio potentzialari eta haren baldintzei buruz izan dezaketen interesa baloratzeko, eta, halaber, tamaina edo prezio potentziala neurtzeko xedarekin, inbertsiogile potentzial bati edo gehiagori jaulkitzaileak berak egiten dien informazio-komunikazioa, edo bigarren mailako eskaintzaile batek egiten diena (agindua tamaina batekoa bada eta ez ohikoa eta inbertsiogile potentzialaren alde aurreko balorazioa eskatzen duen entregatzeko metodoa badu) edo emisio-eskubideen partaide batek edo horien izenean edozein hirugarrenek egiten diena.

18. Entitateen baloreak eta tresna finantzarioak

Entitateen balore eta tresna finantzariotzat hartzen dira aurreko puntuan zenbatutako balore eta tresna finantzarioak, Kutxabankek eta CajaSurrek jaulkiak edo abalatuak.

19. Lotura estuak lotutako pertsonekin

Lotura estutzat hartzen dira:

- a) Enpresa baten boto-eskubideen edo kapitalaren 100eko 20a edukitzea zuzenean edo zeharka.
- b) Kontroleko lotura izatea. Kontrola dagoela ulertuko da hauetako inguruabarren bat gertatzen denean:
 - boto eskubideen gehiengoa edukitzea;
 - administrazio-organotako kideen gehiengoa izendatzeko edo kargutik kentzeko ahalmena edukitzea;
 - hirugarrenekin egindako akordioen bidez, boto-eskubideen gehiengoa eduki ahal izatea;
 - administrazio-organoko kideen gehiengoa izendatu izana.

III. ERANSKINA

ZUZENDARITZAKO ARDURAK DITUZTEN PERTSONEK JAKINARAZI BEHARREKO ERAGIKETA MOTAK

Entitateak jaulkitako tresnei dagozkien eragiketa motak, Administrazio Kontseiluaren eta Zuzendaritza Batzordearen kideek nahitaez komunikatu beharrekoak (Batzordearen 2016/522 [EB] Erregelamendu Delegatuaren 10. artikulua):

- a) eskurapena, lagapena, laburreko salmenta, harpidetza edo trukea;
- b) akzioen gaineko onarpena edo aukerak gauzatzea, zuzendaritza-kargudunei edo langileei ordainsariaren zati gisa esleitutako akzioen gaineko eragiketak barnean hartuta, eta akzioen gaineko aukerak gauzatzetik eratorritako akzioak transmititzea edo lagatzea;
- c) akzioekin lotutako truke-kontratuak harpidetzea edo gauzatzea;
- d) deribatuen eragiketak edo haiekin lotutakoak, eskudirutan likidatutako eragiketak barnean hartuta;
- e) kontratu baten harpidetza, delako jaulkitzailearen tresna finantzarioaren gaineko aldeengatik, edo emisio-eskubide edo haietan oinarritutako produktu substatuen gainean;
- f) eskubideak eskuratzea, lagatzea edo gauzatzea, erosteko eta saltzeko aukerak eta aukera-ziurtagiriak barnean hartuta;
- g) kapital handitze baten edo zor-tresna baten emisioaren harpidetza;
- h) deribatuen eragiketak eta delako jaulkitzailearen zor-tresnara lotutako tresna finantzarioak, kreditu-arriskuaren permutak barnean hartuta;
- i) baldintzen presentziara eta eragiketen gauzapen efektibora lotutako baldintzazko eragiketak;
- j) tresna finantzario bat, automatikoki ala ez, beste tresna finantzario bat bilakatzea, akzio bihur litezkeen bonuen trukea barnean hartuta;
- k) egindako edo jasotako opariak eta dohaintzak, eta jasotako herentziak;
- l) deribatuetan, saskietan eta indexatutako produktuetan gauzatutako eragiketak, 596/2014 (EB) Erregelamenduaren 19. artikulua hala eskatzen duen aldetik;
- m) inbertsio-funtsetako partaidetzetan edo akzioetan egindako eragiketak, inbertsio alternatiboko funtsak barnean hartuta (FIA) –zeinak Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2011/61/EB Zuzentarauaren 1. artikulua aipatzen baititu–, baldin eta hala eskatzen badu 596/2014 (EB) Erregelamenduaren 19. artikulua;
- n) inbertsio alternatiboko funts (FIA) baten zuzendaritzak egindako eragiketak, baldin eta haietan zuzendaritza-kargudun pertsona batek edo harekin lotura estua duen inork egin badu inbertsioa, 596/2014 (EB) Erregelamenduaren 19. artikulua hala eskatzen duen neurrian;



kutxabank

cajasur 

Taldearen Araudia Betetzeko eta Kontrolatzeko Arloa
Jokabide korporatiboa

o) hirugarren alderdi batek gauzatutako eragiketak, baldin eta zuzendaritzako ardurak dituen pertsona baten edo harekin lotura estua duen inoren izenean edo onuran aktiboak edo zorroak kudeatzeko agindu indibiduala badu;

p) jaulkitzailearen zor-tresnetako edo deribatuetako akzioetatik hartutako jesapenak edo emandako maileguak, edo haiekin lotutako bestelako tresna finantzarioak.

IV. ERANSKINA

**MERKATU-ABUSU IZATEKO SUSMAGARRI DIREN
ERAGIKETAK IDENTIFIKATZEKO ZANTZU POSIBLEAK****a. Merkatu-abusu izateko susmagarri diren eragiketak (informazio pribilegiatua edo merkatu-manipulazioa)**

- Balore jakin bateko aginduen edo eragiketen kontzentrazio ezohikoa (esaterako, inbertsiogile instituzional batek edo gehiagok egindakoak, betiere ezagunak badira jaulkitzailearekin edo jaulkitzailearengan interes berezia duen entitate batekin harremanetan egoteagatik, adibidez eskaintzaile erreal edo potentzial bat).
- Eragiketen ezohiko errepikapen bat, bezero kopuru txiki baten artean eta denboraldi jakin baten barruan.
- Bezero bakarrarekin izandako aginduen edo eragiketen kontzentrazio ezohikoa; edo bezero baten balore kontuekin; edo bezeroen kopuru mugagabe batekin (batez ere bezeroak elkarrekin erlazionatuta badaude).

b. Informazio pribilegiatua duten eragiketa posibleak

- Bezero batek kontu bat irekitzen du eta berehala ematen du agindua transakzio esanguratsu bat egiteko, edo, handizkako bezero baten kasuan, ustekabeko agindu handiak edo ezohikoak balore konkretu baten gainean –batez ere bezeroak behin eta berriz adierazten badu eragiketa modu oso urgentean egiteko, edo berak adierazitako une jakin batean egin behar baldin bada–.
- Bezeroak eskatutako transakzioa edo haren inbertsio portaera nahiko atipikoak badira, haren aurreko inbertsio-profilarekin alderatuta (adibidez, balore motari dagokionez, inbertitutako kopurua, aginduaren neurria edo partaidetzaren iraupena). Halako seinaleen artean, tankera honetako kasuak topa ditzakegu:
 - Une honetara arte funtsetan edo zorro dibertsifikatuetan bakarrik inbertitzen zuen bezeroak, bat-batean, posizioak likidatu eta geldikinarekin balore jakin bat eskuratzen du.
 - Ordura arte denboraldi luzez baloreak edukitzen zituen bezero batek balore jakin baten erosketa bat egiten badu gertakari edo albiste garrantzitsu bat baino egun gutxi batzuk lehenago, eta ondoren saldu egiten badu.
- Bezeroak espezifikoki eskatzen badu agindu bat berehala gauzatzeko, zer preziotan egingo den axola gabe (adierazle horrek, gainera, bezeroaren «merkatu» agindu huts bat kolokatzea baino gehiago esan nahi du).
- Akziodun nagusien, bestelako inizatuen edo haiekin lotutako pertsonen operatiba esanguratsua, jaulkitzaile jakin baten gaineko informazio garrantzitsua kaleratu aurretik. Puntu horretan, erabakigarria da entitateek

beren bezeroaren profilaren berri izatea, zer jarduera profesional dituen, baita zer harreman pertsonal edo profesional dituen ere iniziatu posibleekin.

- Ezohiko negoziazioa enpresa baten akzioetan, informazio garrantzitsua argitaratu aurretik; aginduen bolumenean eta baloreen prezioetan bat-bateko aldaketak eta ezohikoak eragiten dituzten aginduak edo eragiketak, delako balorearen gaineko gertakari garrantzitsuak edo iragarki publikoak egin aurretik.
- Enplegatuen euren kontuetatik egindako aginduak edo eragiketak, tresna finantzario berberen gainean bezeroen exekuzioen aurretik eginak.

c. Merkatua manipulatu izanaren zantzu posibleak

- Tresna finantzario baten prezioa handitzea, txikitzea edo mantentzea beste ageriko justifikaziorik ez duten aginduak edo eragiketak. Arreta berezia ipini behar zaie tankera horretako aginduei, merkatu-egunaren erreferentzia-puntuetan gauzatuei (hala nola itxieraren garaian eginei).
- Bezeroak aginduak bidaltzen ditu, eta, balore horrek merkatuarekin alderatuta duen neurria dela eta, inpaktu esanguratsua edukiko dute eskarian edo eskaintzan edo tituluaren balorean edo prezioan. Berrero ere, arreta berezia ipini behar zaie tankera horretako aginduei, merkatu-egunaren erreferentzia-puntuetan gauzatuei (hala nola itxieraren garaian eginei), baita maileguan hartutako baloreekin egindako transakzioei ere, gertakari hori ezagutzen den heinean.
- Tresna finantzarioaren prezioan eragiteko helburua dutela diruditen aginduak edo eragiketak, tresna deribatu baten edo lotutako bihurtutako baten emisioaren aurreko egunetan eginak.
- Posizio baten balorazioa aldatzen saiatzen ari direla diruditen aginduak edo eragiketak, posizioaren neurria murriztu edo handitu gabe, eta tresna finantzarioaren azken titulartasunean aldaketarik eragin gabe.
- Saioan zehar, eguneko edo aldiko batez besteko prezio ponderatua handitzen edo murrizten saiatzen direla diruditen aginduak edo eragiketak.
- Merkatuko prezio bat ezartzen saiatzen direla diruditen aginduak edo eragiketak, tresna finantzarioaren likidezia ez denean nahikoa saioan prezio bat finkatzeko (nola eta merkatu arautuaren arauak edo erregelamenduak ez dituzten berariaz baimentzen eragiketa horiek).
- Merkatuaren negoziazio-bermeak saihestu nahi dituztela diruditen aginduak edo eragiketak (adibidez, bolumenaren mugei, saltzaile-erosle marjinen parametroei eta abarri).
- Erosteke edo saltzeko prezioen aldaketak, transakzio bat amaitu edo gauzatu behar denean, spreada izanik transakzio horren prezioa zehazteko faktore bat.
- Aginduen liburuan agindu esanguratsuak erregistratzea, subastaren prezioa zehazteko fasea baino minutu batzuk lehenago, eta agindu horiek ezeztatzea

subastaren prezioa finkatu aurretik (hala, ondoriozko teorikoa bestela izango litzatekeena baino handiagoa edo txikiagoa emango luke subastan).

- Azpiko tresna finantzarioaren prezioa mugaegunean erlazionatutako tresna deribatuaren ekitaldiko prezioaren gaitetik edo azpitik kokatzen saiatu nahi duten aginduak edo eragiketak
- Tresna finantzario baten likidazioaren prezioa aldatzen saiatzeko itxura duten aginduak edo eragiketak, prezio hori erreferentzia edo determinatzaile gisa baliatzen denean, marjinak kalkulatzeko.
- Itxuraz tresna finantzario baten bolumen negoziatua handitzea beste xederik ez duten aginduak edo eragiketak. Puntu horretan, kontuan izan behar da bereziki sentikorrak diren denboraldiak bat ote datozen (hala nola balore bat indize selektibo batean sartzeko edo ez sartzeko garrantzitsuak direnak), non pizgarriak ager baitaitezke negoziatutako bolumena modu fiktizioan handitzeko.
- Edozein pertsonak egindako aginduak edo eragiketak, baldin eta haien aurretik edo ondoren pertsona horiek eurek edo haiekin lotutako beste batzuek informazio faltsua edo engainagarria zabaltzen badute.
- Edonork egindako aginduak edo eragiketak, pertsona horrek berak edo harekin lotutako beste inork inbertsio-gomendio okerrak edo partzialak aurkezten edo zabaltzen baditu, edo froga badaiteke interes garrantzitsuren batek eraginda jokatu dutela.

IV. ERANSKINA

INFORMAZIO PRIBILEGIATUAREN ETA BESTELAKO INFORMAZIO GARRANTZITSUAREN TIPOLOGIAK¹⁷

1. Informazio pribilegiatuaren tipologiak

Tresna finantzarioei buruz
Akzioak eskuratzeko eskaintza publikoei buruz
Errenta finkoko tresnak berrerosteko eskaintzei buruz
Tresna finantzarioak harpidetzeko eta saltzeko eskaintza publikoei buruz
Tresna finantzarioen jaulkipenei buruz
Kapitalaren tresna bihurtgarriak eta trukagarriak erabiltzeari buruz
Tresna finantzarioen kolokazio nabarmenei buruz
Kreditu kalifikazioei buruz
Berreroste programei buruz
Negoziazioko etetei, altxatzei eta bazterketei buruz
Negoziari eta egoera finantzarioari buruz
Emaitzei buruz (IPP eta CAAREN CIP automatikoak barne)
Plan estrategikoei eta aurreikuspen planei buruz
Aktiboen, lotutako balorazioen eta zorpetzeen eragiketei buruz
Konkurtsu egoerei buruz
Eragiketa korporatiboei buruz: fusioak, eskuratzekak eta bestelakoak
Gobernu korporatiboari buruz

¹⁷ Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak 2020ko urtarrilaren 29an emandako komunikatuko edukia, jaulkitzaileek informazioa jakinarazteko prozedurari buruzkoa.

2. Bestelako informazio garrantzitsuari buruzko tipologiak

2.1. Bestelako informazio garrantzitsuaren tipologiak

Urteko eta auditoretzako txosten finantzarioak <i>(BML, 118. art.)</i>
Sei hileko eta auditoretzako txosten finantzarioak <i>(BML, 119. art.)</i>
Kudeaketako bitarteko deklarazioa <i>(BML, 120. art.)</i>
Gobernu korporatiboaren urteko txostena <i>(KSL, 540. art.)</i>
Kontseilarien ordainsarien urteko txostena <i>(KSL, 541. art.)</i>
Administrazio publikoen ordainketen txostena <i>(Kontuen Auditoretza Legea, 10. XG)</i>
Jatorriko estatu kidea <i>(1362/2007 ED, 2. art.)</i>
Boto eta kapital eskubideen kopurua, guztira <i>(1398/2007 ED, 1. art.)</i>
Akzio motei edo bestelako baloreei lotutako eskubideetako aldaketak <i>(BML, 123. art.)</i>
Lotutako eragiketen jakinarazpena <i>(SRD eremu nazionalera ekartzeko legearen aurreproiektua)</i>
Batzordearen edo Batzarraren deialdia <i>(KSL, 516. art.)</i>
Kontseiluaren erregelamendua <i>(KSL, 512. art. eta hurrengoak)</i>
Batzordearen erregelamendua <i>(KSL, 528. art. eta hurrengoak)</i>

3. Arautu gabeko bestelako informazio garrantzitsuaren tipologiak

Bestelako informazio garrantzitsua
Tresna finantzarioei buruz
Harpidetzeko eta saltzeko eskaintza publikoak
Akzioak eskuratzeko eskaintza publikoak
Beste balore batzuk eskuratzeko eskaintza publikoak
Akzioen erosketa, egonkortze eta autozorro programak
Likidezia eta kontrapartida kontratuak
Negoziari eta egoera finantzarioari buruz



cajasur 

Taldearen Araudia Betetzeko eta Kontrolatzeko Arloa
Jokabide korporatiboa

Eragiketa korporatiboei buruz
Gobernu korporatiboari buruz
Itun parasozialak